



**ZEGAMA
UDALA**

07 ERANSKINA. COVID-19: KORONABIRUSARI BURUZKO INFORMAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Dokumentu honek Zegamako Udalak 2020-2021 ikasturtean haur, nerabe eta gazteen aisia hezitzaileko jarduerak egiteko garatu duen informazio- eta prestakuntza-plana. Dokumentuaren hartzaileak dira jarduera antolatzen duten erakundeak eta instalazioen kudeatzaileak. Garatuko den jardueraren datuak honako hauek dira:

Lekua: Zegama

Data: 2020ko urriak 5etik 2021eko uztailak 30era.

1. Informazio-ekintza orokorrak. Jardueren antolatzaileek honakoak egin ditzakete:

- Udalak informazio eguneratua emango du jarraitu beharreko ohiturei buruz, jarduerak nola egingo diren eta kontuan hartu beharreko neurriei buruz, norberak eraman beharreko materialei buruz, etab.
- Eskuen higienerari eta arnas-higienerari buruzko informazio-kartelak jarriko dira.
- Kutsadurei aurrea hartzeko eta jarduera segurtasunez garatzeko portaera-arauak zein garrantzitsuak diren gogoraraziko du.

2. Profesionalentzako informazio- eta prestakuntza-ekintzak:

- Erakundeek prestakuntza-plan bat izango dute boluntarioentzat eta langileentzat, Covid-19ari eta bere prebentzio-neurriei eta abarri buruz.
- Behar izanez gero, gaitasun sozialei eta emozioen kudeaketako teknikei buruzko aholkularitza emango zaie, langile profesional horiek kudeatu beharko dituzten premia berriak sor daitezkeelako: emozionalak, krisi-egoerak eta abar.

3. Guraso eta legezko tutoreentzako informazio-ekintzak:

- Gurasoei informazioa emango zaie uneoro, seme-alabek egiten dituzten jarduerak eta haien segurtasunerako eta higienerako ezartzen diren neurriak modu argi eta zehatzean ezagutu ditzaten.
- Bilerak egingo dira dagozkion gaiak zehazteko (informazioari, segurtasunari eta abarri buruzkoak). Ezin bada aurrez aurre egin, baliabide telematikoetara, informazio-zirkularretara eta abarretara joko da.

4. Haur, nerabe eta gazteentzako informazio- eta prestakuntza-ekintzak:

- Haurrekin, nerabeekin eta gazteekin gertatzen ari denari buruz hitz egiteko jarduerak egingo dira (zer den koronabirusa, zergatik gorde behar den distantzia, zergatik garbitu behar diren eskuak, etab.)
- Tailerrak egingo dira maskara bat behar bezala jartzen, eskuak garbitzen eta abar irakasteko, haien heldutasun-mailara egokituta eta lehendik dituzten ezagutzetatik abiatuta.
- Higiene- eta segurtasun-errutinak ezarriko dira egiten diren jarduera guztietan.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak motibatuko dituzten eta sedentarismoa saihestuko duten jarduerak eta espazioak proposatuko dira.